

TAILERRAREN INFORMAZIO GIDA

ARLOA: IRAUNKORTASUNA

TAILERRA: BIOANIZTASUNA ETA KONTSUMOA

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008
Telf: 945 01 66 00
Fax: 945 01 66 01
Email: formacion-
araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003
Telf: 94 403 22 20
Fax: 94 403 22 21
Email: formacion-
bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz.
20015
Telf: 943 02 25 90
Fax: 943 02 25 92
Email: formacion-
gipuzkoa@kontsumobide.eus

1. Helburua

Euskal ingurune naturalari lotutako baloreak ezagutzea, baliabide naturalen iraunkortasuna nahiz tokiko garapena bermatuko dituen kontsumo kritiko, kontziente eta arduratsua lortzen laguntzeko.

2. Edukiak

1. Bioaniztasunaren kontzeptua
 - 1.1. Mehatxuak
 - 1.2. Galtzearen ondorioak
 - 1.3. Bioaniztasunaren inguruan garatutako aurre-kontzeptuak eta ohiturak aztertzea.
2. Bioaniztasuna Euskal Autonomia Erkidegoan:
 - 2.1. Espezierik arruntenak
 - 2.2. Babes berezia duten espazio eta habitatak
 - 2.3. Gertuko ingurunearekiko inplikazio pertsonala: Baliabideak eta aukerak
3. Bioaniztasuna eta kontsumoa
 - 3.1. Kontsumo arduratsurako alternatibak
 - 3.1.1. Tokiko eta sasoiko produktuak
 - 3.1.1.1. Baratzeko produktuak ereiteko eta jasotzeko sasoiak
 - 3.1.1.2. Tokiko nekazaritza-garapen iraunkorraren garrantzia
 - 3.1.1.3. Bioaniztasunarekiko kontziente kontsumitzeko errezeten adibideak.
 - 3.1.2. Ingurunea errespetatzen duten produktuak
 - 3.1.2.1. Eko-etiketak: irizpideak eta adibideak
 - 3.2. Kontsumo-ohituren azterketa kritikoa eta hobetzeko proposamenak.

3. Jarduerak

3.1. Aurretikoa

Kontsumobide bisitatu aurretik, ikasleek ingurunean eta, beraz, bioaniztasunean duten inpaktua jakiteko test bat egingo dute.

(puntuazio posibleak, erantzunak eta, beste alde batetik, inprimatzeko galdetegia)

Ondorio posibleak:

- 200 puntutik behera: ez dute planetaren karga-gaitasuna gainditzen eta, ondorioz, ez dute defizit ekologikorik sortzen. Eredugarriak dira eta bioaniztasuna kontutan hartuta kontsumitzen dute.
- 200 eta 400 puntu bitartean: eurenak ez diren baliabideez jabetzen dira. Pertsona guztiek antzeko kontsumo-erritmoa balute, bi Lur baino gehiago beharko genituzke, bioaniztasunaren kalterako, jakina. Ohiturak aztertzea komeni zaie.
- 400 puntutik gora: ezin eusteko moduko bizitza-erritmoa dute. Mundu guztiak baliabide kopuru hori kontsumituko balu, hiru Lur baino gehiago beharko lirateke biztanleria osoa mantentzeko eta bioaniztasuna ez da erritmo horretan hazten. Euren ohiturak berriz pentsatu behar dituzte.

ERANTZUNA	PUNTUAK	ERANTZUNA	PUNTUAK
1.1.	2	5.1.	45
1.2.	5	5.2.	5
1.3.	10	6.1.	15
2.1.	150	6.2.	40
2.2.	50	6.3.	5
2.3.	130	7.1	70
3.1.	5	7.2..	55
3.2.	3	8.1.	5
3.3.	70	8.2.	15
4.1.	85	9.1.	15
4.2.	100	9.2.	5
4.3.	40	GUZTIRA	



Elikadura

1. Euskal Autonomia Erkidegoan ekoiztutako frutak eta barazkiak kontsumitzen dituzu?

- Bai, estalki edo ontzirik gabe datozenak bakarrik.
- Bai, baina ontziratuta erosten ditut batzuetan.
- Ez, beste lekuetako produktuak erosten ditut eta ontziratuta datoz maiz.

2. Jaten bukatu ondoren, zerbait geratu zaizu, zer egiten duzu soberakinekin?

- Zaborretara edo komunera botatzen ditut zuzenean.
- Aprobetxatzen saiatzen naiz.
- Soberakinei dagokien edukiontzian jarriko ditut.

Garraioa

3. Zein garraio mota erabiltzen duzu eguneroko jardunetarako?

- Garraio publikoa erabiltzen dut.
- Oinez edo bizikletaz joaten naiz.
- Autoz eramaten naute.

Elektrizitatea

4. Noiz erabiltzen duzu garbigailua edo ontzi-garbigailua?

- Bete arte itxaron eta martxan jartzen dut, kontsumoa kontutan hartu gabe.
- Arropa edo ontzi kantitatea edo kontsumoa kontutan hartu gabe erabiltzen ditut.
- Energia-kontsumo urrikoak erosi nituen eta beteta daudenean baino ez ditut jartzen.

5. Zein energia mota erabiltzen duzu etxean?

- Arrunta, sarekoa.
- Energia berriztagarriren bat erabiltzen dut (esaterako, eguzki-plakak).

Berogailuak

6. Nola erabiltzen dituzu berogailuak?

- Temperatura altuan jartzen dut, etxean arropa gutxi erabiltzeko.
- Berogailua piztu eta, bero handia egiten badu, leihoa irekitzen dut aireztatzeko.
- Berogailua neurritz erabiltzen dut, arropa apur bat gehiago jantzi beharra izan arren eta tenperaturaren arabera aurrezten saiatuta.

Hondakinak

7. Zer egiten duzu etxean sortutako hondakinekin?

- Zabor-poltsa berean sartzten ditut edukiontzi arruntera botatzeko.
- Berrerabiltzen saiatzen naiz eta gainerakoa bereizi egiten dut, hondakin bakoitza dagokion edukiontzian.

Ura

8. Hortzak garbitzen ari zarela, txorrota irekita uzten duzu?

- Ez, edalontzi bat erabiltzen dut ahoa urez garbitzeko edo beharrezkoa denean baino ez dut irekitzen.
- Oso denbora gutxi behar izaten dudanez, ura irekita uzten dut.

9. Dutxa edo bainua?

- Bainua hartzen dut, hobe geratzen naizelako.
- Nahiago dut dutxa, ur gutxiago gastatzen dudalako.

3.2. Tailerrari dagokionez

Tailerrak hiru jarduera nagusi ditu, modu honetan banatuta:

ARIKETA 1: ZER DA BIOANIZTASUNA?

Jarduerak bi zati izango ditu, gela desberdinetan bideratzekoak:

1.1. Kontzeptua ulertzen

Parte-hartzaileek bioaniztasunaren kontzeptuaren funtsezko alderdiak azaltzeko bideoa ikusiko dute eta, ondoren, zenbait galdera erantzungo dituzte bioaniztasunaren kontzeptuaren alderdi nagusiei nahiz alderdi deigarriei buruz bideoan esandakoa finkatzeko.

1.2. Bioaniztasuna: mehatxuak eta galtzearen ondorioak.

Zenbait puzzle osatu beharko dituzte taldeka. Puzzle bakoitzak mehatxu batzuk eta bioaniztasuna galtzearen ondorio posibleetako bat irudikatzen du. Horren bidez lortu nahi dena pertsona parte-hartzaileak bi alderdiez jabetzea da, baita kontsumitzaile gisa esku hartzeko dituzten aukerak ulertaraztea, euren ohiturak hobetu eta aurre-kontzeptu okerrak aldatzeko asmoz.

ARIKETA 2: EUSKAL BIOANIZTASUNA EZAGUTZEN

Hauek dira jarduera honen xedeak; parte hartzaileak euren inguruneaz jabetaraztea, ingurunearekin inplikatzera bultzatzen dituzten xehetasun batzuk ezagutaraztea eta informazio hori atzitzeko baliabideak ematea.

Horretarako, bizkortasun-jolas bat planteatuko da; web-baliabide baten bidez, hezitzaileek planteatzen dizkieten probak gainditu beharko dituzte. Lurralde jakin bateko espezie zehatzak bilatu beharko dituzte, horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko aberastasun biologikoa ikusgai jarri eta gertuko ingurunearen aniztasunak duen garrantziaz kontzientziazteko.

ARIKETA 3: ZER EGIN DAITEKE KONTSUMOAREN IKUSPUNTUTIK?

Jarduera honen barruan sartzen den dinamika multzoak kontsumo arduratsua eta ingurunearen bioaniztasunarekiko kontzientea praktikatzeko jarraibide praktikoak azaltzea du xede.

3.1. Zu eta zure gertuko baratza... Ezagutzen al duzu?

Naturaren erritmoak eta produktu bakoitzaren sasoi optimoak errespetatzearen garrantziaz ohartaraztea da dinamika honen xedea, bioaniztasunarekiko errespetu-faktore gisa. Horretarako, “hondoratu flotaren” antzeko jolas bat planteatuko da; gure ingurunekeo baratzetako zenbait produktu tipiko erein eta jasotzeko sasoi desberdinak asmatu beharko dituzte parte-hartzaileek.

3.2. Errezeta begirunetsuak

Elikaduraz eta elikadurak ingurunean izan dezakeen eraginaz hausnartzeak duen garrantzia frogatzea da dinamikaren helburua. Horretarako, talde bakoitzari elikagai sorta bat emango zaio eta errezeta bat prestatu beharko dute horiekin, baina bioaniztasuna errespetatzeko irizpideak aplikatuta.

3.3. Zer esan nahi dute ikur hauek?

Dinamika honen bidez, eguneroko bizitzan kontsumitzen ditugun produktuen etiketa ekologikoak zeintzuk diren ezagutzen irakatsi nahi zaie parte hartzaileei: elikadura, arropa, eskola-materiala, garbitzeko gaiak, gailu elektronikoak, etab. Helburu nagusia zera da; bioaniztasuna arlo guztietatik errespetatzen dela ulertaraztea, ingurunearekiko arduratsuak diren erosketa-erabakiekin ere bai.

3.3. Ondorengoa

Kontsumobide bisitatu ondoren egiteko planteatzen dugu jarduera hau;

OHITURAK ETXETIK BERTATIK HOBE DITZAKET?

Gauza erraz bat proposatzen dizuegu: bilatu etxean ikusi dugunen arteko etiketaren bat duen produkturik ote duzun ikusteko. Hemendik has zaitezke...

- *Elikadura*
- *Garbitzekoak*
- *Telebistak, ordenagailuak, etab.*
- *Eskolarako materiala*

Etxeko zenbat produktuk duten eko-etiketa ikusi ondoren, erosketa-zerrenda arduratsua egin dezakezue. Kalkulatu lau pertsonentzako bazkari bat egin behar dela, eskuetarako xaboia eta koaderno eta portamina berri bana. Dagozkien eko-etiketadun produktu berriak bilatu ahal izateko, hemen begira dezakezue:

- <http://ec.europa.eu/ecat/> (Ingelesez)
- *Elikadura ekologikorako, www.eneek.org*
 - *Produktu ekologikoak:*
<http://www.eneek.org/descargas/banner/catalogo/index.html#/20/zoomed>

4. Gaitasunekiko lotura

4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia	Elkarbizitzarako konpetentzia	Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
✓	✓		✓

Izaten ikasteko konpetentzia	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia	Matematikarako konpetentzia	Zientziarako konpetentzia
			✓

Teknologiarako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	Arterako konpetentzia	Konpetentzia motorra
✓	✓		

4.2. Beste talde batzuk

Ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna	Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna	Matematika-gaitasuna eta oinarriko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean	Gaitasun digitala
		✓	✓

Ikasten ikasteko gaitasuna	Gaitasun soziala eta zibikoa	Ekimenaren zentzua eta enpresa-espiritua	Kultura-arloko kontzientzia eta adierazpena
	✓		

5. Baliabideak

Informazio gidak

- KONTSUMO ARDURATSUKO GIDA. ELIKADURA ETA KONTSUMO IRAUNKORRA BLOKEAK. EUSKO JAURLARITZA.
http://www.kontsumobide.euskadi.eus/y10-kbdocs1/es/contenidos/informacion/kb_pubs_mat_didac/es_material/material.html
- GARAPENERAKO HEZKUNTZARAKO BALIABIDEEN GIDALIBURUA. ASKOTARIKO MATERIALAK ETA ESPERIENTZIAK.
<http://directorio-guia.congde.org/guiaderecursos/tematica.php?valor=Medio%20ambiente>

Material didaktikoak

- TAILER OSAGARRIAK KONTSUMOKO PRESTAKUNTZARAKO KONTSUMOBIDE ZENTROAN (www.kontsumobide.eus)
 - Elikagaiak eta kontsumo iraunkorra
 - Kontsumo iraunkorra
 - Energia aurrezte
 - Hondakin-materialak. Birziklatu-berrerabili-murritz.
- “BIOANIZTASUNA-BIGARREN HEZKUNTZA”: CEIDA
http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-6172/es/contenidos/libro/ud_biodiversidad2/es_pub/adjuntos/biodiversidad2.pdf
- BIOANIZTASUN GIDALIBURUA. ZARAGOZAKO UDALA. BIOANIZTASUNARI BURUZKO BALIABIDEEN BILDUMA.
<http://www.zaragoza.es/contenidos/medioambiente/cda/guia-biodiversidad2012.pdf>
- ETIKETEI, SASOIKO ELIKAGAIEI ETA PRODUKTU EKOLOGIKOEI BRUZUKO KANPAINAK, JOLASAK, BIDEOAK ETA INFORMAZIOA.
<http://www.alimentacion.es/es/campanas/>
- EZ JAN MUNDUA. MATERIALAK (POWER POINT AURKEZPENAK, IKUS-ENTZUNEZKOAK, FITXAK, ELKARRIZKETAK)
<http://www.noetmengiselmon.org/spip.php?rubrique10&lang=es>
- LA CAIXA-REN GIZARTE-EKINTZAK ANTOLATUTAKO “EL BOSQUE. MUCHO MÁS QUE MADERA” IZENENKO ERAKUSKETA (dossier pedagogikoa web orrialde honetan eskuragarri - bakarrik gaztelaniaz)
https://www.educaixa.com/documents/10180/1124940/dossier_exposicion_bosque.pdf/9b4324fa-897d-4ab7-9da9-7cda7e31f865

Web-orriak

- IHOBE - EUSKO JAURLARITZAREN SOZIJETATE PUBLIKOA
www.ihobe.eus
- EUSKADIKO BIODIBERTSITATE ZENTROA
www.torremadariaga.net
- NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA INGURUGIRO MINISTERIOA
<http://www.magrama.gob.es/es/biodiversidad/temas/Default.aspx>
- BIODIVERSIDAD FUNDAZIOA - NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA INGURUGIRO MINISTERIOA
<http://www.fundacion-biodiversidad.es/inicio/mediateca/biodiver/biodiver-para-jovenes/biodiver-para-jovenes-juegos>
- ARGAZKI ETA BIOANIZTASUNA ELKARTEA: IRUDI-BANKUAK
www.biodiversidadvirtual.org
- ZERO CO2 EKIMENA- ECODES GKE
<http://www.ceroco2.org>
- EUSKADIKO NEKAZARITZAREN ETA ELIKADURA EKOLOGIKOAREN KONTSEILUA
www.eneek.org
- ETIKETA EKOLOGIKO EUROPARRA - EUROPAKO BATZORDEA (ingelesez)
www.ecolabel.eu

Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: formacion-araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax: 943 02 25 92

Email: formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus